

PIANO AHOTS ETA TXISTU KONTZERTUA

2019ko abenduaren 22a · 18:00
Hondarribiko Kultur Etxeko areto nagusia



MARIA MARTIN
SOPRANOA

IGNACIO ARAKISTAIN
PIANOA

PEIO IRIGOYEN
TXISTUA

ANTOLATZAILEA



HONDARRIBIKO
TXISTU TALDEA K.E.

LAGUNTZAILEA



Hondarribiko
Udala

PEIO IRIGOYEN

Irunen jaio zen 1992an, bertako musika eskolan tronpeta eta txistu ikasketak hasi zituelarik Miguel Echepeare eta Ion Irazokirekin, hurrenen hurren. Tronpeta ikasketak bertan jarraitu bazituen ere, txistu ikasketak Donostiako Musika Eskolan sakondu zituen, Aitor Arozenaren gidaritzapean. Gaur egun Musikenen txistu ikasketak egiten darrai, Aitor Amilibia maisuarekin.

Ikasketak, interprete lanak eta irakasle lanak uztartzen ditu, Oartzungo Soinuenea eskolan txistu eta dultzaina irakasle delarik 2017 urtetik. Horrez gain, Irungo Txistulari Bandako lehen txistua da eta Kemen Euskal Dantza Taldeko musikarien taldea gidatzen du.

Txistulari bakarlari moduan hainbatetan aritu da Donostiako Udal Txistulari Bandarekin eta Hondarribiko Txistulari Alardeetan, eta kolaboratzaile lanetan Bilboko Udal Txistulari Bandarekin, besteen artean.

IGNACIO ARAKISTAIN

Azpeitian jaio zen, 1998an. Musika munduan bere lehen pausuak herriko Juan de Antxieta musika eskolan eman zituen. Ondoren, bere ibilbidea, Donostiako Francisco Escudero erdi mailako kontserbatorioan jarraitu zuen, Junkal Guerrero irakaslearekin piano ikasketak eginez. Bere herrian hasi zituen, baita ere, organo ikasketak, Jose Luis Frantzesena irakaslearekin.

Duela bi urte, saritua izan zen Euskal Herriko Musikari Gazteen lehiaketan, teklak kategorian eta Donostia Hiria sariketan, berriz, Enrique Lartundo fundazioren aipamen berezia jaso zuen. Gaur egun, Musikenen, Esteban Landart, Loreto Fdz. Imaz edo Loïc Mallié maisuekin organoko goi mailako ikasketak egiten dihardu. Horrez gain, ia bere pianoko goi mailako ikasketak hasi zituen Musikenen, baita ere, Miguel Ituarte maisuaren gidaritzapean.

MARIA MARTÍN

Irunen jaioa, Ametsa Txikin hasi zen abesten eta egun Musikenen ikasten du kantua Maite Arruabarrena mezzo-sopranoa eta Javier Perez de Azpeitia errepetitoristarekin. Bi aldiz irabazi du Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketako lehen saria (2015 eta 2017) eta 2017ko "Intercentros Melómano de España" lehiaketea bigarren saria jaso zuen. Bere errepertorioak hainbat zarzuela eta operatako bakarlari paperak ditu (Dido eta Eneas edo El Caserío, esaterako) eta baita Carmina Burana, Mozarten Requema, Pergolesiren Stabat Matera, Bachen Magnificata eta Petite Messe Solennelle bera ere.

EGITARAUA:

Ohorezko kontrapasa J.I. Ansorena/J.R. Semperena

Hiru ataleko alborada E. Gorosarri

Siete Lieder vascos P. Sorozabal:

I.Ametsetan

IV.Lotoren lorak

V.Ez dot zinesten

Diez melodías vascas J.Guridi

Asiko naz

Aritz adarrean

Garizuma luzerik

Ala baita

Nere herriko neskatxa maite B. Lertxundi

Xalbadorren heriotzean X. Lete

Gabon kantua:

Oi bethleem Herrikoia

Haurtxoa Seaskan G. Olaizola